



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

BURDINAZKO ZALDIA BIDASOAN GOITI




SARIA:

Ekainaren 25eko
BENITO LERTXUNDIren
Doneztebeko kontzerturako

bi sarrera
(Laboral Kutxak
eskainiak)

2016ko EKAINA 148. ALEA

IRAKURLAN



Aurtengoa hagitz urte garrantzitsua da Bidasoko *Tren Txikitorantz*, izan ere, duela 100 urte lehendabiziko bidaia egin zuen, beraz, bere urteurrenaren ospakizun urtean gaude. 1956an azken bidaia burutu zuen, orain dela 60 urte, hain zuzen ere. 40 urteko ibilbide horretan gure historiaren zati bihurtu da, gertaera historikoak bere bagoietan gertatzen ziren bitartean, *Tren Txikitok* berak historia egin du. Garbi dago ttur-ttur hark Bortziriak, Malerreka eta Baztango biztanleen egunerokoan azarnak utzi dituela; beti Bidasoaren zaintzaile, gaueko lana egiten zutenen zaintzaile, errekarara arrantzan edo garbiketa egitera hurbiltzen zirenen zaintzaile... Trenaren bagoietatik eskualde honen historia pasatu da, eta, hori dela eta, ale honetan historia hori errepasatu nahi izan dugu.

Bidasoko burdinazko erraldoiak gure eskualdean zehar bidaiak egiten zituen bitartean Nafarroako hainbat eskualdetan ere bertze tren batzuk martxan ziren, errate baterako *Vasco-Navarro* trenbidea, Bergara eta Lizarra Gasteiztik zehar lotzen zituen trenbide estuko burdinbidea. *Plazaola* ere badugu, Donostia eta Iruñea lotzen zituena. *Tarazonica* da hirugarrena zerrenda honetan, Tuter eta Tarazona lotzen zituena. *El Irati* ere aipatu behar dugu, Iruñea eta Zangotza elkartzen zituena, eta akitzeko, *Soria-Castejon* ibilbidea egiten zuen trena aipatuko genuke.

Bidasoko trena edo *Tren Txikitor*en historian aipatu behar dugu Bera eta Lesakako meategietatik ateratzen zen minerala Irunera garraiatzeko erabiltzen zen trena dugula aurrekaria edo aita.

1912an *Minas de Irun y Lesaka y Ferrocarril del Bidasoa* enpresak Mourgès jaunari eta Ferrocarriles del Bidasoari saldu zien egitura guzia. Urte horretako proiektuaren helburua, Irun eta Iruñea elkarren artean lotzea zen: Irun-Donztebe; Donztebe-Elizondo, eta ondoren Elizondo-Iruñea bideak eginez. Hasi eta berehala, azkeneko tartea baztertu egin zuten, zailegia eta garestiegia zelako.

1912tik 1916ra, lau urtez lan gogorra eginez, zortzi tunel eta bortz zubi egin eta 51.499 kilometro luzera osatuz gauzatu zen hasmentako proiektua. Gaurko Irungo topoa dagoen tokitik abiatuta hamaika geltoki eta *apeaderotan* geratuz egin zuen lehendabiziko bidaia 1916ko otsailaren 1ean Donzteberaino, bertan, Mourgès jauna eta herri osoa ongi etorria emateko zain zituela (suziri, musika banda, eta abarren laguntzaz). Baina hori ez zen inaugurazio bakarra izan, maiatzaren 28an Elizondorainoko zatia akituta, trenbide osoaren inaugurazioa ospatu baitzen, solemnitare osoz eta Iruñeko artzapezpikuak bedeinkatuta. Behin betiko ibilbidea osatuta, bi ordu eta hamar minutuko joan etorria zabaldu zen.

IRAKURLAN

40 urteko ibilaldi honetan *Tren Txikito* Baztan, Malerreka eta Bortzirietako bailaretako erreferente bi-lakatu zen, baita ekonomia, kultura eta era guztietako harremanak sendotzeko tresna ere. *Tren Txiki-to* nolakoa zen aipatzean, erran dezakegu garai hartako lurrinezko tren-makinarik onenak erabiltzen zituela eta bitxikeria gisa aipatzen ahal da Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba izenak hartzen zituz-tela makina haiek. Alemanian erosiak izan ziren eta gerra garaian izan zenez, Afrikako iparraldea eta Iberiar penintsula zeharkatuz ekarri behar izan zituzten. Lokomotora handiaz gain, beste txiki batzuk ere bazituela aipatu behar da: Zarautz, Amezola, Cadagua eta Villa de Irun.

1930. urtean gasolinazko tren-makinak ezarri ziren 50 kilometro orduko abiadura lortuz. Dena den, hainbertze geltoki eta zamaleku izateak ibilbide luzea eta motela sortu zuen, eta, nahiz eta makina azkarrek erabili, moteltasuna ez zen ekidin ahal izan. 1918tik 1925era *Tren Txikitok* etekinak izatea lortu bazuen ere, errepideen hobekuntzen, autobus enpresen sorreren eta kamioi txikien erabilpenen eskutik etorri zen bere gainbehera.

Gerra akituta eta nozitutako kalteak moldatuta, Diktadurak bere gain hartu zuen Bidasoko trena. Horren harira, aipatzen ahal da 1941etik 1946ra, berriz ere irabaziak lortu zituela, zonaldean eraiki zituzten bunker txikiak egiteko legarra, hormigoia, etab. garraiatzeko berau erabili zutelako. Ordu-rako, erran daiteke *Tren Txikitor*en garairik hoberenak jada pasa zirela.

Horrela, zorrez beteta eta langileen soldatak ezin ordainduz, azkenean Frankoren gobernuak itxi-arazi zuen: 1956ko abenduaren 31ko arratsalde hotz hartan *Tren Txikitok* azken bidaia egin zuen.

1958an Lesakako *Laminaciones* siderurgia sortu zen eta sorkuntza horrek honako galdera sortu zuen: "*Berriz altxatuko ote dute trena?*" Gaur, *Tren Txikitor*en historia aztertzean, garbi dago ez zela horrelakorik gertatu. Dena den, bere aztarnek eta bideak gaur egun bizirik diraute, Europa mailako *EuroVelo* edo Bide Berdearen proiektuak, trenbide ohiaren oihartzuna bizirik mantentzen baitu. Europatik gure eskualdean barrena txirrindulariak, arrantzaleak, mendizaleak... bere ibilbidea zehar-katzen dute. Ttur-ttur, pedalez pedal, oinez... izokinen ibilbidea eginez gure bailara zeharkatzen dute. Gainera, oraindik ere proiektu honek fruituak ematen jarraitzen du; Doneztebetik, Malerreka eta Basaburuan barna *Plazaolako* bidearekin bat eginda Iruñeraino zabalduko baita. *Tren Txikitok* eta *Plazaolak* bat eginda, historia egiten jarraituko dute.





LAN eta LAN

Testuan hainbat data eta urte agertu dira. Ondorengo azalpenetan urtea, eguna, hamarkada... nola idatzi behar ditugun azaldu behar dugu, ondoren zure txanda izanen da, behean agertzen diren esaldietan era zuzenak zeintzuk diren aukeratu beharko duzue eta.

Herria: hautazkoa da eta hasieran adierazten da. Bi modutan jarri daiteke: Ziga edo Zigan. Bukaeran, non marka eransten bazaio (-en), egunari ere noiz marka erantsi beharko zaio (-ean): Ziga(n), 2016ko ekainaren 27a(n)

Urteak: milakoak punturik gabe idazten dira (2016an); atzetik urte hitza badute -garren adierazten duen puntua idatzi behar dugu: 2016. urtean.

Noiztik nora, zer urtetik zer urtera

Tren txikito 1916tik 1956ra bitarte martxan egon zen

Eguna adierazteko: zifraz eta minuskulaz idazten dira, baita jai edo historiako gertakari baten izena badira ere: azaroaren 25a, martxoaren 8a

Salbuespena: Maiatzaren Lehena (beti maiuskulaz)

Hamarkadak adierazteko: zifraz idazten dira beti, -ko loturarekin: 1980ko hamarkada

Data: Urtea **-(e)ko** hilabetea **-ak** eguna ---: 1956ko abenduak 31, edo,
Urtea **-(e)ko** hilabetea **-aren** eguna **-a**: 1956ko abenduaren 31a

Noiz galderari erantzun behar badugu: Urtea **-(e)ko** hilabetea **-aren** eguna **-(e)an**
Tren txikitok azken bidaia 1956ko abenduaren 31n egin zuen. * abenduak 31n, **gaizki**.

Orain zure txanda. Esaldi hauetan azpimarraturik bi data modu daude, bata zuzena eta bertzea okerra. Zuzena aukeratu.

- 1.- a) Langileen eguna maiatzaren lehenean b) Maiatzaren Lehenean izaten da
- 2.- a) Ekainak 2an b) Ekainaren 2an eginen dugu afaria Linddurrenborda sagardotegian.
- 3.- Emakumearen eguna a) martxoak zortzian b) martxoaren 8an ospatzen da.
- 4.- a) 2.015ean b) 2015ean ia 180 lagun hil ziren kotxe istipuz.
- 5.- a) 1990garren b) 1990. urtean sortu zen IKA koordinakundea.
- 6.- a) Ekainaren 4tik 16ra b) Ekainaren 4etik 16era sarrerak eskura daitezke.
- 7.- a) 1912tik 1916ra b) 1.912etatik 1.916etara *Tren Txikito*ren obrak burutu ziren.
- 8.- a) 1920ko, 1930ko, 1940ko eta 1950ko b) 1920-ko, 1930-ko, 1940-ko eta 1950-ko hamarkadetan Nafarroako trenbideen loraldia izan zen.
- 9.- a) Elizondo, 2016ko ekainaren 6an b) Elizondon, 2016ko ekianaren 6an.

BITXILOREAK

Bidasoaldean ibiltzen zen tren honen inguruan, hamaika istorio xeble ezagutzen dira. Atal honetan xeblekeria edo bitxikeria horietariko baten berri emanen dizugu, non emakumeak diren pertsonaia nagusiak. Ikusiko duzunez, hutsune batzuk daude testuan zehar, beraz, zure esku gelditzen da behegian aurkituko dituzun aukerekin istorioa osatzea.

ERNE, SARIRAKO!

Tren txikito izenez ezaguna zen Bidasoaldeko garraiobide honek, kontrabandoan1..... zerikusia izan zuen. Honen harira, aipatzekoa da emakumezkoen parte hartzea aferan honetan, izan ere, tren baliatuz, erosgaien garraioan paper garrantzitsua izan baitzuten.

Aski ezagunak izan ziren garai hartan "arrain-saltzaile" goitizenez aritzen ziren2....., dozena erdi inguru, hain zuzen ere, kasik egunero Baztan-Bidasoko herrietara arraina ekartzen zutenak. Arrain-saltzaileak trenetik jaitsi3..... laster, orgatxoak laguntzaz arraina banatzen4..... etxe eta herriko azoketan, gero bertan saltzeko.

Halere, bertze motatako produktuak ere ekartzen zituzten gure bailaretara; hala nola, puruak, tabakoa edo kafea, beti ere, saskietan kabitzen5..... arabera. Buelako bidean ere etekina ateratzen zioten, arraina saltzen ateratako diruarekin, haragia erosi eta mozkinak eskuratzen baitzituzten enkargu bereziak egiten zituzten hainbat bezerori6..... . Kasu horren adibide dugu Igantziko Hita ostatuarena, arrain-saltzaile haietariko batek bertan uzten baitzuen aitzineko eguneko mandatura, eta hurrengo egunerako eskaria jasotzen baitzuen. Antolaketa handia egin behar izaten zuten emakume haiek bidean agertzen zitzaizkien oztopo guziei aurre egin eta bezeroen mandatuak modu egokian burutu ahal izateko.

Jenero7..... garraiatzeko orduan, saskiak eserleku azpian gordez8..... saiatzen ziren, edota jantzita zeramatzaten mandarretan produktuak ezkutatzeko ibiltzen ziren. Hala ere, ez zuten lan tiki haiek egiteko arazo handirik izan, dirudienez, tren bidaetan zaindari lanetan ibiltzen ziren guardia9..... ez zien trabarik paratzen, noizbehinka kobratzen saiatzen ziren ordainen baten kasuan10..... .

Gaur egun oraindik emakume haiek gogoratzen11....., maitekiro egiten dute. Erraten dutenez, langileak, ausartak eta borrokalari handiak izan ziren.12....., aipatzekoak dira argitalpen ezberdinetan plazaratu diren arrain-saltzaile haien zenbait izen: Pepita Bizkarrondo, Lina (ez da bere abizena ezagutzen) edo Mary ("La Gallega" goitizenez ezagutzen zena).

- | | | | |
|---|---|--|---|
| 1. a) baita
b) ere bai
c) ere | 2. a) emakumeak
b) emakumeek
c) emakumeok | 3. a) adina
b) bezain
c) bertze | 4. a) zituzten
b) zuten
c) zizkieten |
| 5. a) zitzaien
b) zitzaienaren
c) zen | 6. a) saltzen
b) salduta
c) saldutak | 7. a) hau guzia
b) guzi hau
c) guzi hauek | 8. a) disimulatzea
b) disimulatzeko
c) disimulatzen |
| 9. a) bikotea
b) bikoteak
c) bikote | 10. a) izan ezik
b) baizik
c) ez ezik | 11. a) dutenek
b) dituztenek
c) dituztenak | 12. a) Ala
b) Ahala
c) Hala |





Ondoren ageri den mapan ikusi ahal izanen duzu *Tren Txikitoak* egiten zuen goiti-beheitiko ibilbidea. Bertan, trena pasatzen zen herri batzuk markatu ditugu eta adibide gisa Irun utzi dugu. Zure lana, falta diren herriak identifikatu eta beheitiko taulan gehitzea izanen da. Geografian sobera aditua ez bazara, ariketa errazteko asmoz osatutako zerrenda erabiltzen ahal duzu:

- a) Behobia d) Elizondo g) Alkaiaga j) Lekarozeko eskola l) Igantzi-Arantza
 b) Arraioz e) Endarlatsa h) Oronoz-Mugairi k) Doneztebe-Elgorriaga m) Sunbilla
 c) Narbarte f) Lesaka-Etxalar i) Legasa



Pkm	Geltokia	Pkm	Geltokia	Pkm	Geltokia
0	14. Irun (herria)	7,5	San Migel	37,7	7.....
0,2	Irun (muga)	9,5	12	39,7	6
1	Irun – Bidasoa	13,1	Zalain	40,1	5
1,2	Mendibilgo zamalekua	15,8	11	41,3	Reparazea
1,8	Arteaga	18,9	10	43,2	4
2,4	Konpantzia	23,1	9	47,3	3
3	13	29,6	Espelosin – Casilla	48	Errotako bidea
4,1	Gastainalde	30,5	Espelosin	49,7	Irurita – Lekaroz
4,9	Alunda	31,5	Latsa	50,6	2
6,1	Lastaola	33,5	8	51,5	1

ERANTZUNAK

LAN eta LAN (4. or.):

1- b; 2- b; 3- b; 4- b; 5- b; 6- a; 7- a; 8- a; 9- b

NON OTE (6. or.):

1- d; 2- j; 3- b; 4- h; 5- c; 6- i; 7- k; 8- m; 9- l; 10- f; 11- g; 12- e; 13- a

147. aleko sariketa erantzunak – HITZAK DANTZAN (6. or.):

A- 5; B- 10; C- 12; D- 11; E- 7; F- 2; G- 3; H- 6; I- 4; J- 9; K- 1; L- 8

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: Ekainaren 25eko
BENITO LERTXUNDIren
Doneztebeko kontzerturako bi sarrera
(Laboral Kutxak eskainiak)

147. aleko irabazlea:
Iratxe Etxarte Alzuri
Lesakakoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzin; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak ekainaren 22a baino lehen bidali itzazu.


SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

- | | | | |
|-----------|-----------|-----------|------------|
| 1 - _____ | 4 - _____ | 7 - _____ | 10 - _____ |
| 2 - _____ | 5 - _____ | 8 - _____ | 11 - _____ |
| 3 - _____ | 6 - _____ | 9 - _____ | 12 - _____ |



UDAN ere, EUSKARA errazago eta azkarrago



metodika
euskara ikasteko metodologia berria



- LESAKAN, 100 orduko UDA IKASTAROAK, B1-4. urratsetik EGARA
- DONEZTEBEN, abuztuan, EGA ikastaroa

Informazioa eta matrikulak:

- Uda ikastaroak, 948 637 796 bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus
- Doneztebeko EGA ikastaroa, 948 451 555 malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

www.ikaeuskaltegiak.eus

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

